

## ESKUAL-ERRIA ETA ESKUARA



### BIGARREN GARAIT SARIA

*AIREA: Jakintsunen arabea...*

Frantzian eta Espainan bada toki ederrik,  
Bainan ez Eskual-erriak bezain laket lekurik,  
Iakintsunak mintzo dira bietan ibilirik,  
Eskualdunen sor lekuak ez duela parerik.

Zazpi probentzietarik irur ditu Frantziak,  
Etan dira edatuak Eskual-erri guziak,  
Iduri zero zolako Izar begi argiak;  
Eliza bana erdian daude churi-churiak.

Munduak ez duelakotz neon toki oberik,  
Eskual-erri sano garbi unen pareko denik.  
Nola uda azkenean usoak Iparretik,  
Arrotzak dira ospeka eldu mundu guzitik.

Erleak ez du ain maite buratzeko lilia,  
Nola baitute arrotzek maite Eskual-erria  
Alegera danak badu zertaz egin irria,  
Eta erriak emen du biltzen osagarria.

Lorez estalia dagon Pentze gainaren pare,  
Itsas egiko erriak, iendez betetzen dire,  
Eskual-erri eder unek badu ortaz oore,  
Bere sor lekuak utziz unat eldu baitire.

Arrotzeiek ikustean gazte Pilotariak  
Eien guduka ederrak eien, beso kaldiak,  
Esku zarta eta oiuz ari dire guziak,  
Biba Eskualdunak eta biba Eskual-erriak.

Zurgin, Argin, Sastre, Arotz, Zapetain, Bendariak,  
Lur-langile, Artzain eta Itsas-arraitzariak,  
Eskual-errietan dire zorionez betiak,  
Baliatzen baitituzte beren iakitatiak:

Lurreko Parabisua baita Eskual-erria,  
Eder bezain aberatsa eta maitagarria,  
Alaber dugu mintzaia neon pare garbia  
Gure probentzietarat Iberek ekarria:

Mintzaiarik zaarrena dugu Eskual-errian,  
Erregina bat bezala auzokoen erdian,  
Nola chita chume batsu amaren egal pean,  
Bertzeak ala dagozi Eskuararen aldean.

Ar dezagun chede zin bat Eskuaraz mintzatzeko,  
Gure mintzaia ederra galtzerat ez uzteko,  
Bertze mintzaiak on dira munduan ibiltzeko.  
Bainan an atchik dezagun Eskualdunen arteko.

Ait et ama zoro batzu irriz daude aurreri,  
Eskuara itz naasiak erraiten tuzteneri,  
Bainan buraso zuurrak eginen du obeki,  
Erakustea chuchena, makur mintzo denari.

Mende zaarreko ama oi Eskuara maitia.  
Kaskoin oien kopetarik baduzu oinazea,  
Nai zaituzte aurtiki eta kendu bizia,  
Bainan Eskualdunak zor du chutik atchikitzea.

PIERRE DIBARRART, *Baigorrikoa.*

